



Orain dela bi urte Udaletxean egin zen aurkezpena.

JOHAN LIZAL

Sagardotegiak ateak zabaltzeko prest

■ Asteartean egingo da ekitaldi ofiziala eta Javier Clemente izango da gonbidatu berezia. ■ Puntu-puntu dago sagardoa.

Javier Clemente futbol entrenatzailea izango da aurtengo sagardo denboraldiari hasiera emango diona, Joxe Mari Bakerori erreleboa hartuz. Azken urteotan bezala, herrian egingo da ekitaldi ofiziala, hemen biltzen baitira Gipuzkoako sagardotegi gehienak. Hala ere, ospakizun ofiziala asteartean izan arren, sagardotegiek ez dituzte ateak ostirala arte zabalduko.

iaz bezala sagar uzta oso heldua eta azukre askokoa izan da, eta sagardogileek adierazi dutenez, kontsumitzaileek kalitate handiko sagardoa dastatu ahal izango dute.

Bideoa

Sagardoa nola egiten den jakin nahi duenak badu aukerarik Zipotza kultur taldeak prestatu duen bideoa ikusiz. Udalak eta Lakuako Nekazaritza sailak beren laguntza eman dute bideo hau egiteko eta bertan sagardoren prozesu guztia erakusten da.

Honez gain, Domingo Ariña enologoa eta Silvana Huegun dietistak sagardoari buruzko iritzia ematen dute aipatu bideoan.

Sagardotegien denboraldiaren hasiera herritarrago bilakatzeo asmoa ere agertu zuten iazko aurkezpenean eta aurten frontoi berriaren egiteko aukera ere aipatu zuten, baina ez dirudi egiterik izan denik.

EGIN

Iaz Astigarragako sagardogileek sagardotegiak irekitzeko egun ofiziala San Sebastian jaien aurrerako ostirala izendatu zuten eta aurten urtarrilaren 19an bertan zabalduko dira.

Azken urteotan egin den moduan ospakizun modura bazkaria egingo da Petritegi sagardotegian eta bertan txalapartariak, bertsolariak eta dantzariak ere parte hartuko dute. Halere, letan Astigarrako Udaletxeko Pleno Aretoran sagardogileek aurtengo uzta buruzko xehetasunak emango dituzte. Bertan izango dira Inaki Txueka Nekazaritzako diputatu forala, German Muruamendiaraz Gas-

teizko Gobernuako Elikadura Politikarako zuzendaria eta Mikel Zabala alkatea.

Sagardogileak pozik agertzen dira aurten izan duten produktioarekin eta uzta ona dela diote. «Eguraldia lagun izan dugu eta sagar askoko urtea da aurtengoa. Halere, Gipuzkoan alde handia izan da sagar kopuruan gune batetik bestera. Adibidez, Beterrin uzta oparoa izan bada, ez da gauza bera gertatu Goierri eta kostaldean». Baina batz besterik ez dira polita delakoan daude.

«Sagardoa oso puntu onean dago eta abuztuan euri gutxi egin arren ezin gara eguraldiaz kexatu», azaltzen dute. Beraz,



POLIZIA NAZIONALAREN KARGA AMARA ZAHARREAN. Amara Zaharrean poliziaren presentziaren aurka manifestazioa egin zen atzo arratsaldean eta bertan 300 pertsona inguruk hartu zuten parte. Polizia Nazionalaren koartelaren aurrean zeudenean pelotazoak botatzen hasi ziren manifestarien aurka eta jendeak korrika ihes egin behar izan zuen.

JAVIER GALLEGO